

HIGIGARRIEN KAPITALAREN ETEKINAK

KONTZEPTUA

Higigarrien kapitalaren etekin tzat onura nahiz kontraprestazio guztiak hartuko dira (diruzkoak zein gauzazkoak izan) baldin eta zuzenean edo zeharka zergadunaren titulartasunpeko higigarri diren ondare elementu, ondasun eta eskubideetatik badatoz eta zergadunak egiten dituen jarduera ekonomikoei loturik ez badaude.

Horren arabera ondokoak dira higigarrien kapitalaren etekinak:

1. Mota guztietako erakundeen funts propioetan partaidetza izanez lortutako etekinak.
2. Norberaren kapitala hirugarrenei lagata lortutako etekinak.

[.....]

1. Mota guztietako erakundeen funts propioetan partaidetza izanez lortutako etekinak.

Kategoria honetakoak dira:

- Mota guztietako erakundeen dibidenduak, ba tzarretara joateagatik primak eta irabazi-partaidetzak. Zergaren kargatik salbuetsita daude, urteko muga 1.500 euro dela.

[.....]

2. Norberaren kapitala hirugarrenei lagata lortutako etekinak.

Halakotzat hartuko dira: mota guztietako kontraprestazioak (diruzkoak zein gauzazkoak, izena eta izaera gorabehera), korrituak, lagapena ordaintzeko hitzartzen den beste edozein ordainketa-modu, eta besteren kapitalak erakarri eta erabiltzearen ordezkari diren mota guztietako aktiboak eskualdatu, itzuli, amortizatu, trukatu edo bihurtzetik datozenak ere.

Kategoria honetakoak dira:

a) Hirugarrenei norberaren kapitalak lagatzeagatik jasotzen diren korrituak eta lagapen hori ordaintzeko hitzartzen diren ordainsariak. Ondokoak dira, besteak beste:

a.1) Mota guztietako finantza erakundeek emandako korrituak, finantza aktiboen eragiketetan oinarritutakoak barne. Adibidez:

- Kontu korronteak.
- Kontu korronte bereziak.
- Aurrezki libretak edo kontuak.
- Ordainketa altuko kontuak.
- Finantza kontuak. Honelako kontuetako saldoak Zor Publikoan inbertituta egon ohi dira.
- Eperako ezarpenak.

a.2) Mota guztietako finantza erakundeek emandako gauzazko ordainsariak. Hauxe konputatu behar da: merkatuko balioaren eta kontura egindako sarreraren batura.

b) Besteren kapitalak erakarri eta erabiltzearen ordezkari diren mota guztietako aktiboak eskualdatu, itzuli, amortizatu, trukatu edo bihurtzearen ondoriozko kontraprestazioak, aktiboak etekin esplizituak, inplizituak zein mistoak sortzea gorabehera eta nola dokumentatu diren kontuan hartu gabe. Multzo honetan hauek sar daitezke:

b.1) Finantza aktiboak berriro erosteko itunarekin aldi baterako lagatzearen ondoriozko errentak.

b.2) Herri Zorraren tituluak eskualdatuta lortutako errentak:

- Al txorreko letrak
- Estatuaren obligazioak eta bonuak

[.....]

ETEKIN OSOA

Oro har etekin osoa zera izango da: lortutako guztirako etekina.

GASTU KENGARRIAK

Oro har, salbuespenak salbu, ez dago gastu kengarririk.

ETEKIN GARBIA

Etekin osoa bera izango da.

ALDI-EGOZKETA

Oro har, Zergaren oinarrian sartu beharreko errentak zehazten dituzten sarrerak eta gastuak sarrerak sortu diren eta gastuak gertatu diren zergaldiari egotziko zaizkio, kobrantza eta ordainketa egokiak zein unetan egiten diren gorabehera.

ATXIKIPEN EHUNEKOAK

Higigarrien kapitalaren etekinei aplikatu beharreko atxikipen ehunekoak hauxe da: %19